

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko azaroaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

IKASTETXEETAKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ANTOLATZEKO 2025-26 IKASTURTEKO DIRULAGUNTZAK**a) Ikastetxeetako banaketa.**

2024ko abenduaren 5ean Tokiko Gobernu Batzordean hartutako erabakian ikastetxeetako eskola jarduerentzako dirulaguntzak emateko irizpideak aldatu egin ziren, dirulaguntzei esleitutako diru-partida handitzearekin bat: 18.400 eurotik 38.400 eurora. Irizpideak aldatzea eta partida handitzea helburu honi erantzuteko onartu zen: arazo ekonomikoengatik ikaslerik ez gelditzea jardueretan parte hartu gabe eta ikastetxe guztiek aukera bera izatea horrelako jarduerak antolatzeko.

Ordura arteko dirulaguntzak, 18.000 €, irizpide hauen arabera ematen ziren

1. Ikastetxeei ikasle kopuruaren arabera emango zaie, horretarako matrikula datuak hartuko dira kontuan.
2. Txirrita eskolako ikasle kopurua hiru aldiz handiago balitz kalkulatu da.

Orain bi irizpideren arabera emango dira laguntzak, eta bakoitzak diru kopuru jakin bat izango du esleituta:

1. 18.000 € honako irizpide hauei jarraiki, orain arte bezala:
 1. Ikastetxeei ikasle kopuruaren arabera emango zaie, horretarako matrikula datuak hartuko dira kontuan.
 2. Txirrita eskolako ikasle kopurua hiru aldiz handiago balitz kalkulatu da.
2. 20.000 € irizpide hauen arabera:
 - Ikasle zaurgarrien kopurua. Horretarako ikasle bekadunen kopurua hartzen da aintzat.

Beraz, irizpide horien arabera honela banatuko dira dirulaguntzak:

1.- Ikasle kopuruaren arabera emango den dirulaguntza:

2025-2026 ikasturteko matrikula datuak ondorengoak dira:

Ikastetxeak	Ikasleak
Aratz Ikastetxea	387
Urumea Ikastola	182
Langile ikastola	575
Elizatxo ikastola	333
Hernani BHI	771
Lanbide Heziketa	238
Txirrita eskola	162 (54 x 3)
Guztira	2.648 ikasle

Horrenbestez banaketa honela izango litzateke:

18.000,00 euro /2.648 ikasle: **6,798 euro** ikasle bakoitzeko.

IKASTETXEA	IKASLEAK	DIRULAGUNTZA	%80	%20
Haurreskola		400,00	320,00	80,00
Aratz ikastetxea	387	2.630,66	2.104,53	526,13
Urumea ikastola	182	1.237,16	989,73	247,43
Langile ikastola	575	3.908,61	3.126,89	781,72
Elizatxo ikastola	333	2.263,60	1.810,88	452,72
Hernani BHI	771	5.240,94	4.192,75	1.059,43

Lanbide Heziketa	238	1.617,82	1.294,26	323,56
Txirrita eskola	162	1.101,21	880,97	220,24
Guztira	2.648	18.400,00	14.720,01	3.679,99

2.- Ikasle zaurgarrien beharrei erantzuteko, bekadunen kopuruaren arabera:

Ikastetxeak	Bekadunak
Aratz Ikastetxea	215
Urumea Ikastola	153
Langile ikastola	120
Elizatxo ikastola	122
Hernani BHI	271
Lanbide Heziketa	18
Txirrita eskola	8
Guztira	907 ikasle

Horrenbestez banaketa honela izango litzateke:

20.000,00 euro /907 ikasle: **22,051 euro** ikasle bakoitzeko.

IKASTETXEA	IKASLEAK	DIRULAGUNTZA	%80	%20
Aratz ikastetxea	215	4.740,90	3.792,72	948,18
Urumea ikastola	153	3.373,16	2.699,01	674,75
Langile ikastola	120	2.646,09	2.116,87	529,22
Elizatxo ikastola	122	2.690,19	2.152,15	538,04
Hernani BHI	271	5.975,74	4.780,59	1.195,15
Lanbide Heziketa	18	396,91	317,53	79,38
Txirrita eskola	8	176,41	141,13	35,28
Guztira	907	20.000,00	16.000,00	4.000

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko azaroaren 20an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela **Tokiko Gobernu batzarrek aho batez erabaki du:**

2025-26 ikasturteko eskola jardueren dirulaguntzak onartzea

Kontusaila: 1.02.481.01.323.00 (2025) Ikastetxeak kanpoko ekintzak: **38.400 €**

Ordainketa modua: Ikasturte hasieran: %80a. Ikasturte amaieran, memoria aurkeztu ondoren: %20a

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko abenduaren 09an
Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiazta dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza elektronikokoaren bitartez

Gudarien Plaza 1 · 943 337 000 · hhz@hernani.eus

EKS | CSV: ESKU1356f012-2bdb-4d4d-a2ec-b5d32811b7c6



Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010>
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010>

Tokiko Gobernu Batzarrek, 2025eko azaroaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

6- ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ANTOLATZEKO 2025-26 IKASTURTEKO DIRULAGUNTZAK: b- HHI-EPAREN DIRULAGUNTZA

Hernaniko Udal aurrekontuetan HHI-EPA ikastetxearentzat eskolaz kanpoko jarduerak aurrera eramateko dirulaguntza jasota dago.

IKASTETXEA	IKASLEAK	DIRULAGUNTZA	%80	%20
HHI-EPA		3.600,00	2.880,00	720,00

Hori horrela, dirulaguntzaren %80 bideratzea proposatzen da eta gainontzeko %20a, memoria eta likidazioa aukezterakoan.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2025eko azaroaren 20an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela **Tokiko Gobernu batzarrek aho batez erabaki du**

2025-26 ikasturteko eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeke dirulaguntzaren %80a ordaintzea.

Kontusaila: 1.02.422.01.326.03 (2025) Dirulaguntza HHI-EPA.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluaekin bat etorri.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeke errekurtsioa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorri, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsioak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko azaroaren 27an
Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiaztatu dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza elektronikoaren bitartez

